

KOSTUEN EGITURA

Atal honetan negozio eredu bat aurrera ateratzeak bere baitan dakartzan gastu guztiak definituko ditugu. Garrantzitsua izango da oreka jasangarri bat bilatzea gastu finkoen eta minimiza daitezkeen gastuen artean, gure enpresa aurrera atera ahal izateko.

Kostu egiturek ondorengo ezaugarriak izan ditzateke: kostu finkoak, kostu aldakorrek, eskala ekonomikoak eta zabalkunde edo hedadura ekonomikoak.

Gure enpresan izango dituen kostu finkoak ondorengoak izango dira: ordenagailua, telefono finkoa, mugikorrek eta hornitzaileei ordaindu beharrekoa.

Kostu aldakorrei dagokienez, ez ditugu ohikoak diren kostu aldakorrek izango izan ere, argi indarra, ura... udaletxeak ordainduko dizkigu. Gure kostu aldakorra salduko ditugun produktuak erostea izango da, geroz eta gehiago saldu gure kostu aldakorrek handiagoak izango baitirelako.

Eskala ekonomikoari dagokionez, produktua guk ez dugula ekoitziko kontuan izanda, guk ez dugu horrelakorik izango. Gure produktua, hornitzaileek ekoitziko dute, beraz, hornitzaileek izango dute eskala ekonomiko delako hori.

Zabalkunde edo hedadura ekonomikoak ere ez ditugu edukiko.